

2021/2022 SICUE MUGIKORTASUNA

2021eko otsailaren 12an GAUR-ean SICUE programako eskaera egiteko epea zabaltzen da. Kontuan izan behar duzu nazioarteko mugikortasun programa batean plaza bat esleituta izan baduzu, ezin duzula SICUE mugikortasuna eskatu, arautegiari jarraituz.

GARRANTZITSUA. SICUE programak ez du inolako finantzaketarik: plaza eskatzen baduzu, esleitzen bazaizu eta gero uko egiten diozu arrazoi ekonomikoengatik, Errektoreordetzak penalizazioa ipiniko ditu.

ESKAERA EGIN BAINO LEHEN

1. **Urratsa** – Egiaztatu mugikortasuna eskatu ahal izateko Eskolako baldintzak betetzen dituzula
2. **Urratsa** – Kontsulta ezazu [gure webguneko](#) “Mugikortasun programak” atalean, norakoei buruzko informazioa.
3. **Urratsa** – Bidali itzazu zure zalantza guztiak sicue.eib@ehu.eus helbidera.

Eskaera GAUR-ean egitea:

1. **Urratsa** – Sartu [Koordinazio eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren webgunean](#) eta irakurri arreta handiz eskaera egiteko instrukzioak.
2. **Urratsa** – Zure GAUR kontuan, “Unibertsitate trukea”, “Kontsultak”, “Truke mugikortasunak”, “Bilboko Ingeniaritza Eskola” atalean norakoei buruzko informazioa aurkituko duzu.
3. **Urratsa** – Zure GAUR kontutik, “Unibertsitate trukea”, “Eskaerak”, “Truke programak” atalean eskaera egin ahal izango duzu. Zure datu pertsonalak guztiak egiaztatu ondoren, sakatu “Eskaera berria” botoia eskaera egiteko. Eska daitekeen norakoen kopurua: 3 gehienez, lehentasunak ordenatuta
4. **Urratsa** – Eskolako Nazioarteko Harremanen Bulegoan (P1E2) aurkeztu paperean, (otsailaren 12tik martxoaren 8ra arte, biak barne) jendaurreko ordutegian:
 - Eskaera bete-betea
 - Eskola-espeditente originala (UPV/EHUtik kanpoan ikasi baduzu)
 - Hizkuntza-mailaren egiaztagiria originalak (aurkeztean, fotokopia egiten da, eta originalak itzuli egiten dira)
 - Parte-hartze ziurtagiriak (Buddy programa eta beste kolaborazio-jarduerak Eskolarekin)

GOGORATU: GAUR-ean eskaera egiteko epea 2021eko otsailaren 12tik martxoaren 4era arte da, biak barne.